



Garikoitz Etxeberria lizartzarra atxilotu dute ETAko kide izatea egotzita

ATXILOKETA ▶ Asier Larrinaga
bilbotarrarekin batera atzo atxilotu
zuen Azkainen Frantziako Poliziak

KARGUAK ▶ Zornotzan eta
Atxondon aurkituriko lehergai
gordelekuekin lotzen dituzte ▶ 6

ALEGIA ▶

Euskara
taldea
sortzeko
bilera

Udaletxean egingo
dute, datorren
astelehenean ▶ 3

ABEL BARRIOLA ▶
PILOTARIA



N. GARZIA

«2006. urteak
hasiera txarra
izan du, baina
amaiera ona»

Urteko balorazioa
egin du leitzarrak;
«itxaropentsu» da ▶ 4-5



Lizartzan, atzo arratsaldeko seiak aldera egin zituen miaketak Ertzaintzak, Garikoitz Etxeberriaren etxean. NEREA URBIZU

TOLOSA ▶

Bideragarritasun
planaren zain daude
Amaroz lantegian

Egoera ekonomiko larria bizi du
paper fabrikak; 120 langile dira ▶ 2



Amaroz paper fabrika. E. EZEIZA

orange Orange ONky

Gernikako Arbola, 1 • TOLOSA

TELEFONOA DOAN

+

%50eko deskontua betiko

Euskaltelen kontratu bidezko bezero bazara

EKONOMIA ▶



Amaroz auzoan kokatuta dago 175 urteko historia duen Amaroz paper fabrika. HITZA

Bideragarritasun planaren zain daude

Egoera ekonomiko larria bizi du Amaroz paper fabrikak, eta proposamena itxaroten ari dira arazoa konpontzeko

ESTI EZEIZA

Egoera ekonomiko larria ari da bizitzen Amaroz paper fabrika. Izan ere, egun dituen bi makinekin ez du behar bezain beste etekin ateratzen, eta etorkizunera begira akziodunek ez dute inbertsiorik egin nahi.

Arazo honen aurrean, bideragarritasun plan bat egiteko enpresa bat kontratatu dute langileek. Dena den, plan hau aurrera eramane bitartean, langileek dirua ipini beharko dute datorren hilabeteetan lantegiaren jarduerarekin aurrera jarraitu ahal izateko. Bestalde, zurrumurru ugari zabaldu dira paper fabrikaren etorkizunaren inguruan, baina ELA sindikatutik azaldu dutenez, «oraindik ez dago ezer zehaztuta, eta langileen batzordea —ELAKO

zazpi delegatuk eta CCOOko bik osatzen dute— zenbait erakunderekin hitz egiten ari da». Udaletxearekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta abarrekin hitz egiten ari dira, enpresa bideratu eta akatsak zuzentzeko helburuarekin.

Orain dela hilabete gutxi gorabehera eskatu zuten bideragarritasun planaren egikaritzea Amarozko langileek, eta datorren hilabeterako edo eskuetan izatea espero dute. Dena den, plan hau proposamena bat da, eta honek ez du ziurtatzen duten egoera hobetuko denik. Bestalde, ELAKoek adierazi dutenez, «plan hau bideratu bitartean langileek dirua jarri beharko dute, eta oraingo hori da garbi dagoen gauza bakarretakoa».

Egoera antzekoa pairatzen

dute inguruko zenbait paper fabrikak. Paperaren merkaturian, kiloko prezio bat du paperak, eta etekinerako alde txikia da.

Egun, Amarozkoak bi makina ditu eta 120 pertsonak egiten dute lan bertan. Produktibitateari dagokionez, orduko ez da irabaziak lortzeko bezain beste ekoizten. Arazo hau konpontzeko inbertsio handia egin beharko lukete akziodunek. Gainera hau kate bat da, eta makina berriak erostek, instalakuntzetan ere aldaketak egin beharra suposatuko luke. Halaber, duela urte batzuk ere egoera ekonomiko larrian egon zen Tolosako paper fabrika. Eta honenbestez, hau ikusita, akziodunek ez dute garbi ikusten etorkizuna, eta ez dute arriskatu nahi.

iragarki laburrak ▶

LANA

Banatzalea. Baserriko produktuak banatzeko banatzale bat behar da. 943 68 22 14.

Langileak. Langileak behar dira eskoletarako eta udaltxeetarako. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.

Harreragileak, laguntzaileak. Harreragileak, laguntzaileak erakunde publikoetarako. Interesatuak deitu 943 44 48 66ra.

Zaintzailea. Neska eskalduna

behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko Tolosaldean. Interesatuak deitu 650 77 77 02 telefono zenbakira.

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko lantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuak deitu 943 65 41 43ra.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Justua irudituko al zaizu Abel Barriola Binakako Pilota Txapelketatik at gelditzea? Bat egiten al duzu Asegarre pilotaren enpresak hartutako erabakiarekin?» SARTU TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO WEBGUNEAN ETA ESAN ZER PENSATZEN DUZUN GAI HONEN INGURUAN.

POLITIKA ▶

Mobilizazioak deitu ditu Segik, etzirako

Jarrai-Haika-Segi epaiketaren sententzia hilaren 18a baino lehen jakingo da



Epaiketa salatzen Borroka Eguna deitu zuten Segikoek. O. ESKITXABEL

E. EZEIZA

Hilaren 18a baino lehen Jarrai-Haika-Segi epaiketako azken sententzia kaleratzea azken errekusi dute. Honen aurrean, Segi gazte erakundeak manifestu bat plazaratu du. Hala, egun hauetan eskualdeko gazte mugimenduko eragile eta pertsona ezberdinen atxikimendua lortu nahi dute. Hau bideratzeko, ostiral honetarako antolatutako mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen dute Segikoek.

Gazte erakundearen hitzetan, «sententzi hau Euskal Herriaren nazio eraikuntzan diharduten sektore eta eragile askoren aukako epaiketen aurrekari izan daiteke». Bestalde, «sententzi honekin euskal gazteriak antolatzeko eta borrokatzeko duen eskubidea epaitu nahi da». Honen aurrean, Segikoek garbi dute Auzientzia Nazionalak ez duela inongo zilegitasunik euskal gazteria epaitzeko, «ez direlako inor nola antolatuta eta borrokatu behar dugun esateko, salbuespeneko tribunal arrotz bat baita».

Gazte erakundeak, manifestu honen bitartez, independentziaren eta sozialismoaren bidean antolatzen eta borrokatzen jarraitzeko konprometua berretsi egiten du. Eta gaineratzen du, hori dela «gazte-

riarentzat eta herri honentzat askatasunerako bide bakarra».

Manifestuko puntuak

Duela 27 urte gazte independentista eta ezkeriarren kezkatik sortu zen Jarrai gazte erakundeak. Talde honen helburua, momentu horretan euskal gazteriak pairatzen zuten arazoei aurre egiteko eta independentzia eta sozialismoaren proiektu politikoa gauzatzea zen. Baina hau ilegalizatu izan zen, eta ondoren Haika sortu zuten. Hau ere legez kanpo uztea erabaki zuten epaileek, eta honen ondoretik Segi etorri zen.

Egun, Segi erakundeak epaitu behar dute, «ilegalizazio edo terrorismo» parametroetan. Arrazoi honengatik, Segik Espainiako eta Frantziako estatuei, «euskal gazteriarri dagokion eskubide zibil eta politikoa errespetatu eta Epaitegi Gorenean ematen ari den epaiketa politikoa eteteko» exijitzen die. Beraien esanetan, «edozein kolektiboren eskubidea da antolatzea eta borrokatzea bere helburu politikoa lortze bidean, gazte espazio autogestionatuak eta etxebizitza eskubidea kasu». Horregatik, Segi gazte erakundearen jardueraren sozio-politiko zilegitzen dute.

ALEGIA ▶

Saharako
errefuxiatuei
laguntzeko
bilketa abian

ERREDAKZIOA

Alegiko Udalak Sahara herriarekin elkartzasunean, urtero bezala, elikagaien bilketa egingo du. Joan den abenduan eta urtarrila bitarte *Piztu Itxaropena* izenez eza gutzen den kanpaina jarri zuten martxan.

Jada jakina denez kanpaina honen helburua saharar errefuxiatu kanpamentuetara eramateko elikagai bilketa burutzea da. Aurtien bilduko dituzten elikagaien baitan azukrea, hegaluzea, arroza, dilistak eta konpresak dira nagusi. Hauek Alegiko eskolatan edota udaletzeko gizar-te zerbitzuetan utzi ditzakete interesatuek.

Hilaren 19ra arte egingo dituzte Saharako errefuxiatu kanpamentuetara bidaliko dituzten bilketak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibaralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

ALEGIA ▶ EUSKARA

Astelehenean egingo
dute euskara taldea
osatzeko bilera

Bai Euskarari Ziurtagiriari buruzko informazioa argitzeaz gain, hau bultzatzeaz eta honen alde lan egiteaz ariko dira

ERREDAKZIOA

Datorren astelehenean Alegiko udaletxean Bai Euskarari taldeak deituriko bilera egingo dute. Bertan, euskara bultzatu eta haren alde egin nahi duen guztiak har dezake parte, hori baita asmoetako bat: Alegialdean euskararen alde egiteko talde bat sortzea. 19:30ean bilduko dira.

Bilera honetan funtzionamendu eredua guztiz lotuko dute eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren sustapen lanaren diseinua eta aurtengo eragite lanaren diseinua aurkeztuko dituzte. Horrez gain, Bai Euskarari Akordioa, Bai Euskarari Ziurtagiria eta Eragite lana zer diren azalduko dute.

Bai Euskarari akordio eta konpromiso prozesua eta Bai Euskarari Ziurtagiria herrieta-
ra hedatu du Kontseiluak. Hau

da, bertako euskalgintzak sustatuta herrietan konpromiso prozesua bideratzea herri bakoitzeko entitateen eskutik. Kontseiluak modu bateratuan bultzatzen ditu dinamika horiek, prozesu honetan parte hartu nahi duten herriei eredu bat eskainiz, eta Euskal Herri mailan entitate nagusienekin garatzen ari den prozesuarekiko koherentzia bermatuz. Kontseiluaren eginbeharra da herriek beharko duten aholkularitza eskaintzea, dinamizatzea eta eragitea.

Prozesu honen azken emaitza Bai Euskarari Ziurtagiria da. Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiria eskainiko die entitateei normalizazioaren alde egiten ari diren ahalegina aitortu asmoz eta, aldi berean, konpromiso hori jende aurrean erakusteko ikur gisa erabil ahal izan dezaten.

Konpromiso prozesuak jadanik bidea egina du Aiztondon. 2001 urtetik Tolosaldean Bai Euskarari akordio eta konpromiso prozesua garatzen ari da, eta horren baitan eskualdeko 13 entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria.

Horiek hala, Bai Euskarari Akordio eta konpromiso prozesua bai Tolosaldean eta bereziki Aiztondon zabaltzeko helburuarekin euskalgintzako marhaia sortu du. Orain, mahai horien funtzioa zein den argitzeko helburuarekin txostena aurkeztu dute. Bertan helburuak argitzen dituzte.

Bai Euskarari Ziurtagiria

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez enpresek, saltokiek eta era guztietao entitateek euskararekiko konpromisoa adierazten diote gizarte osoari.

TALDEA

Asteleheneko bilerako asmoetako bat Alegialdean euskararen alde egiteko talde bat sortzea da

ZIURTAGIRIA

Bai Euskarari Ziurtagiria lortzeko euren hizkuntza egoera aztertu eta dituzten helburuak proposatu behar dituzte

ERAGINA

Tolosaldean Bai Euskarari akordio eta konpromiso prozesua garatzen ari da; 13 entitatek dute Ziurtagiria



Alegian, UEMA Eguna ospatu zuten: euskara sendo dagoen arren, euskara taldea garrantzitsua da. M. SOROA

BILERA ▶

Eguna. Astelehena.

Ordua. 19:30ean.

Lekua. Udaletxean.

Herria. Alegia.

Deitzailea. Bai Euskarari taldea.

Helburuak. Alegialdean euskararen alde lan egiteko eta euskara bultzatzeko talde bat osatu nahi dute. Horrez gain, Bai Euskarari akordioa, Bai Euskarari Ziurtagiria eta Eragite lana zer diren azalduko dute.

Hauek euskararen normalizazioaren aldeko neurriak garatzen ari direla akreditatzen du Kontseiluak. Honela, hauen ahalegina saritu eta aldi berean konpromiso hori jende aurrean erakusteko bereizgarria ematen die.

Bai Euskarari Ziurtagiria maila ezberdinetan bereitzen da: Euskararen normalizaziorako gutxieneko neurriak hartzen eta garatzen ari diren enpresei, saltokiei eta entitateei zuzendutakoa, zerbitzua euskaraz eskaintzen duen enpresei, saltokiei eta entitateei zuzendutakoa eta hirugarrenik, zerbitzua euskaraz eskaini eta euskara lan hizkuntzatzat duten enpresei, saltokiei eta entitateei zuzendua dagoena.

Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko hizkuntza egoera aztertu behar da eta, hemendik abiatuta, urtean zehar garatu nahi dituzten helburuak proposatu behar dituzte. Urteko planifikazio hori egin ahal izateko, Kontseiluak *Erakundearen hizkuntza egoera aztertze-ko eta planifikatzeko fitxa* eskaintzen du. Honen bidez, enpresek eta saltokiek urteko helburuak adierazteaz gain, horiek gauzatu ahal izateko epe nahiz baliabideak ere zehaztu ahal izaten dituzte.

Hartutako konpromisoak bete daitezkeen laguntzeko asmoz, Kontseiluak euskararen normalizazioan lagun dezaketen baliabideen inguruko informazioa haiei eskura jartzen du: diru laguntza deialdiei buruzko informazio eguneratua, euskaraz aritzen diren profesionalen gida, hizkuntza normalizazioan laguntzen duten aholkularitzak, euskarazko dokumentuak non eskura daitezkeen, langile euskaldunak non topa daitezkeen...



ABEL BARRIOLA ► PILOTARIA

«Ezinezkoa da buruz burukoan galdu nuenean baino beherago joatea»

Urte gorabeheratsua igaro du, eta lau t'erdian txapeldunorde izan arren, pozik dago, txapel
preziatuena lortu duelako: berriz ere goi mailan aritzea.

IMANOL MAGRO (Berria)

Leitzan jende guztiak agurtzen du, musuak eta hostekoak etengabe ematen ditu. Herriki-deek Abel Barriolari (Leiza, 1978) estima diotela berehala sumatzen da kalean. Goiz horta egiten du, eguzkia ageri den arren. Eguraldia eta pilota kontuak izan dira nagusi tabernarako joleen. Behin epelietan sartuta, kafetariak gabeak kafearen aurrean, pilotariak urteko errepasoa hasi du.

2006. urtea izan da. Zer modukoa izan da zuretzat?
Hasiera txarrekoa, lesioekin ezin irten eta berriz ere zuloa jasuz. Abuztuak aurrera, ediz berriz ere ondo jokatzeko hasi nintzen eta bukaera ona eman diot beharrez. Ez 2007a ondo hasten dugun eta ondo bukatuko aukera dugun.

Hasiera eta bukaera, erabat desberdinak?
Oso desberdinak, hasiera latza, deus ere jakin gabe, minarekin bukatuak... eta bukaera, berriz, sendatuta eta final bat jokatu. Urte bakarrean pilotaren mutur gozo eta garratza dastratu ditut. Gorabeherak asko irakatsi didate.

Buruzburukoaren zailtasunak.
Noski. Zuloatik irten nahiela dirudi eta orain boladari segidita eman nahi diot. Halere hementik aurrera lesioek errepesatu nahiela da garrantzitsua.

Bere gurasuak pilotariaren gogoa zela esan omen zenuen, eta hitz horiek oharrean handia izan dire.
Kontuan hartu beharra dago kazetariek asko gustatzen zaiela morbo puntua nabarmen-tzea, baina egia da une txarrak izan zirela, eta halakoetan tankerak guztietako pentsamen-duetarako denbora egoten da. Une txarretan batzutan dena uzteko gogoia izaten duzu, eta beste batzutan inoiz baino le-mentatuago esanatu zaitzake.

Kontua ez zen uzte muen ala ez, lur jota murgola eta gaizki pasatzen ari nintzela baina.
Lesioak itzultzeko egia zenuen lehen aldiz ez al zela goiztiago izan?
Orain begiratu da Ordehan, atera nintzenezan, munduko fedeguztariaren irten nintzen, eta nire burua manomanista



ANEXO ONEILLA / AIZGARI PRESS

jokatzeko gai ikusten nuen. Gero kamalez, kantak erakutsi zidan ez zela hala. Salakera oso garesti ordaindu nuen gainera, hiru hilabete gehiago egin baitahuten jokatu gabe.

Buruzburuko porrota golpo leza luango sent?

Bai, buruzburuko handia izan zen, Galteza beti da latza, baina hala galteza eta eskua berriz ere mundu muela ikustea oso gogorra izan zen.

Elizpea?

Hori da hitz egokiena, garai txarretan frustrazioa izan da gehiena. Gauza bat da giharraren bateko lesio bat edukitzea, apurka sendatzea eta gero ondo egotea. Baina hau gogorragoa izan da, ondo zaudela uste eta erortzea, berriz ere iten eta berriz ere erortzea... eta halako dezentze izan ditut azken urte honetan.

Lau t'erdian berripuz osen zara. Hilda al zurendak?

Ja-ia, kar-kar... Hilda ez, baina hondoa jota egon nintzen. Manomanista galdutako nuenen beherago joatea ezinezkoa zen, eta hori aurrera hobetzea bakarrik baino ez nuen.

Bat-behean berriz ospetuz, izola batzuek gabe-gabe agertu zara.

Badaugu kirol mundua nolalokoa den, eta bere inguruan prentsa eta pilota zaleak dau-de. Hotzean pentsatuta elkar-ribete ematea semele ona da, gauzak ondo egin eta bere fruitua eman dutelako. Ospeak, baina, ez du deus balio, gaur autografoak banatzen dituru etengabe eta bihar zurekin abazten dira. Baina tira, nik oinarri nintzen diru, beldak nongo nahiela eta ondo dakit nortak diren nire lagunak.

Le hitz berriz izan da lau t'erdiko txapelak. Gurek desber-din izan da du?

Ez dut izan finala berriz ikuste-ko adoretik, ez naitz ausartu. Baina beste alde batetik bai, oro har dena desberdin ikus-ten da. Hurrengo egunetan ha-serre nengoen, baina burua hotz, konforme nago. Urte nola hasi nuen ikusta, bukaera hori ematea poztekoa da. Tris-tura eta golpe handiak izan dira, baina pozaren barrenean.

Halakotan garesti txarretan al-bon lanbideko erortzen

2006. URTEA

«Hasiera txarrekoa izan zen, abuztutik aurrera aldiz berriz ere ondo jokatzeko hasi nintzen; bukaera ona eman diot»
ILUSIOA

«Zuloatik irten nahiela dirudi eta orain boladari segidita eman nahi diot; lesioek errepesatu nahiela da garrantzitsua»
LAGUNTZA

«Koadrilakoak, etbekek eta pilotariaren atzean egon den taldeak zeresan handia izan dute»

da. Zehazki izan dira gehien laguntza jaso duzunak?

Etxekoak, koadrilakoak eta pilotariaren atzean egon den talde hori, prestatzaile fisikoak, kirol zuzendakariak... Euren ere zeresan handia izan dute.

KATE MOTZEAN ►

«Askori zorit diot pilotari, ofizioa eta afizioa bat dira»

Txapelaren ondoren da txapelak gabe, Gabeak nola pasatu dituzte?
Ondo pasatzea zaila izaten da, baina lortzen denean izugarria da.
Gabeak nola pasatu dituzte?
Lagun eta familiaritate.
Olotzerori zerbailek eskatu al zaituzte?
Osozina.
Golan eta behean zurendak pilotari berdin izan da du?
Aholketan ez, baina berdin ikusi beharke litzateke.



JACOB MATELLA / AIZGARI PRESS

tasela ezten duz. Egia al da hori?

Bai, eta ez da hain normala. Oso nerutsua zara. Zer utzi da gertatzen ingurumenare-ri?
Natura suntsitzen ari gara. Az-kenean hondamendiak latza pa-sako da, azaro eta abenduko berroak ez dira normalak eta egunen batean dena bertan behera egingo da.
Pilotari on baten, nola luango itzultzea zure oharra?

Ikusten ez nintzen batelergo-tik pasa ere egin, beraz, segur aski nire lagunen antzera ibil-ko nintzateke, ingulterez edo behargin.
Askori zorit diot pilotari.
Askori zorit diot, ofizioa eta afi-zioa bat dira. 4

BERRIA egunkariak
itzultzaile-zuzentzaileak behar ditu
(erref.: euskara)

Balaratuko da:

- Testuak itzultzen edo zuzentzen esperientzia izatea.
- Ingelese, frantsesez eta alemanez jakitea.
- Itzulpen masterra egina izatea.

Interesa izanez gero, bidali curriculumak urtarrilaren 15erako lanpostuak@berria.info helbidera, erreferentzia zehazturik.

Urtarrilaren 12tik aurrera zabaltzen dugun

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 18 01 19
20211 ATAU

Aurrezki Gorakorra EUSKADIKO KUTXA

%5,00
LITERTURAKO BERRIEN
LAGUNTZEN SAILA 1500€

%3,50
LITERTURAKO BERRIEN
HIRUGARREN SAILA 1500€

%3,25
LITERTURAKO BERRIEN
BIGARREN SAILA 1500€

%3,00
LITERTURAKO BERRIEN
LEHEN SAILA 1500€

%3,71
2 URTERAKO GORDAILUA
GUTXIEKIZ 3.000 EURO

Goi-goian

Gehieneko zenbatekoa bezero bakoitzeko: 30.000 €
• Inbertsioaren zenbateko eskuduzko sarrearen edo beste entitate batzuen txekien bidez osatuko da •
• Inbertsioak zehazki behin bidaltzeko dira • Ekarizta 36 milioi euro gisatu arte edo 2007ko otsailaren 15era arte egongo da indarrean • Eusko Kutsuak 15 eguneko epea emango du, formalizazio-egunetik aurrera, gogora egiteko, eta, nahiz izanez gero, erregulatu bertan behera utzeko

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Garikoitz Etxeberria atxilotu dute Azkainen ETako kide izatea leporatuta

Asier Larrinaga bilbotarrarekin batera atxilotu zuten lizartzarra atzo goizean; Ertzaintzak Atxondoko eta Zornotzako lehergai gordelekuekin lotu ditu biak

ERREDAKZIOA

Frantziako Poliziak bi lagun atxilotu zituen atzo Lapurdiko Azkain herrian ETako kide izatea leporatuta. Espainiako Barne Ministerioak baieztatu zuenez, Garikoitz Etxeberria Goikoetxea lizartzarra da horietako bat; bestea berriz, Asier Larrinaga Rodriguez bilbotarra.

Barne Ministerioak azaldu-takoaren arabera, Frantziako eta Espainiako poliziaren arteko operazioaren baitan egin zen atxilotuta atzo goizeko zortzi eta erdietan Azkaingo plazan. Atxilotetako anean, arropaz betetako motxila bana eta pistola bat atzeman zizkieten, Etxeberria eta Larrinagari. Ondoren, Baionako polizia etxera eraman zituzten biak. Askatasun atxilotetaren inguruan adierazi zuenez, inkomunikazio egoeran jarri zituzten eta euren senitartekoez ez zuten inolako informaziorik jaso.

Atxiloturiko bi gazteak Atxondoko eta Zornotzan aurkituriko lehergai gordelekuekin lotu dituzte bi toki horietan aurkitutako zuloekin zerikusia dutelakoan. Joan den hilaren 4tik ari omen ziren Larrinagaren bila, Ertzaintzak Atxondoko ehun kiloko lehergaiak bidia aurkitu zuenean. Gau horretan bertan, Ertzaintzak Larrinagaren etxebizitza miatu zuten. Aipaturiko aurkikuntza, abenduaren 23an Zornotzan



Atzo iluntzeko zortzietan, atxilotuen aldeko manifestazioan, 100 lagundik gora bildu ziren. MADDI SOROA

aurkituriko zulo batekin lotu dute.

Operazioak zabalik jarraitzen du eta Ertzaintza, Espainiako eta Frantziako segurtasun zerbitzuek miaketak burutu zituzten beste bi lagunena bila, ustez atxiloturikoen konplize eta ETako kide direlakoan. Berangon, Elorrioren eta Ipar Euskal Herrian hainbat etxebizitza miatu zituzten atzo. Tolosan ere egin zituzten miaketak, hain zuzen ere, Garikoitz Etxeberriaren senitartekoen etxebizitzan.

Miaketa lanak

Lizartzan, atzo arratsaldeko seiak aldera hasi ziren miaketa lanak. Ertzaintzaren bi furgoi bertaratu ziren eta Garikoitz Etxeberriaren etxearan atarian geratu ziren ertzainetako bi. Senitartekoez adierazi duteenez etxean ez zegoen inor une horietan, Baionako komisaria-ra joanak baitziren jendarmeen hitz egitera Etxeberriaren egoeraren inguruko informazioa jasotzera. Lizartzan, berriz, hogeitahiru inguru bil-

du ziren etxe atarian egoeraren berri izateko. Bitartean, ertzainek etxeko atea behera bota zuten miaketak egiteko eta ganbaran eta garajeetan ere izan ziren.

Bestalde, herritarrek deituta eta Askatasunak lagunduta manifestazioa egin zuten atzo iluntzean Lizartzako plazatik abiatuta, *Amnistia eta Askatasuna, Gari eta Asier askatu* lelopean. Hala, «atxilotetak salatu eta atxilotuei babesa» eman nahi izan zieten plazan elkarturiko 100 lagun inguruk.

KIROLA ▶

Altuna I.a izango da erremonte finalean

Urrutiarekin batera amezketarrak 40-33 irabazi dio Zeberio II.a eta Jon bikoteari

I. GARCIA

Binakako Faustino Erremonte Txapelketarako txartel bat zegoen jokoan atzo Galarretan. Bikote bakoitzean eskualdeko erremontista bat zegoen. Azkenean, Altuna I.a amezketarrak, Urrutia bikotearekin, Zeberio II.a elduindarrari eta Jon bikoteari 40-33 irabazi zieten. Beraz, larunbateko finalean Ezkurra eta San Miguelen aurka lehiatuko dira.

Hasieratik Altunak eta Urrutiak hartu zuten aurre markagailuan eta besteak gerturatzeko baziren ere, ez zuten berdintzerik lortu. Bikote irabazlea erregularragoa izan baitzen partidaren zehar. Zeberio I.a eta Jonek, berriz, boladaka jokatu zuten. Nabarmenezkoa da Jonek huts ugari egin zituela, 11 guztira. Eskarmentu gutxiakoa da horrelako partida erabakiorretan eta horrek eragina izan ahal zuen bere jokoa. Zeberio I.a ezin izan zuen bere mailarik onena eman, Altunak eta Urrutiak pilotak bere gainetik botatzen baitzituzten eta markagailuan atzetik joateak ere ezinezona sortu zion.

Partidaren erdialdera, 22-20ko markagailuarekin, Zeberio eta Jonek norgehiagokari buelta emango zitela zirudien, baina Altuna eta Urrutia berriro aldendu ziren eta partida irabaztea lortu zuten.

iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40
1. planta - 7. Inbegoa
20400 TOLOSA
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Alegia. Eraikuntza berriko pabilioiak. Azken modulua. 350m²etatik hasita.
Anoeta. 90 m²ko etxebizitza salgai, kanpora begira eta berritu beharrekoa.
Belautza. Bifamiliarra, bi solairurekin eta 270 m²ko lursailarekin.
Belautza. Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.
Berastegi. Bi solairuko pabilioia alokairuan, 700 m² solairu bakoitzeko.
Berastegi. Famili bakarreko etxea

salgai, 4.000 m²ko lursailarekin batera.

Berrobi. Behe solairuko etxebizitza. 50 m²koa. 117.200 euro.

Irura. San Migel plaza. Atikoa. 76 m² erabilgarriak.

Irura. Eraikuntza berriko bi apartamentu salgai garaje eta trasteroekin.

Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariekin, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.

Tolosa. Erremeritari kalean etxebizitza salgai. Eraberritua.

2 logela, 24 m²ko egongela, bainugela eta sukaldea.

Tolosa. Santa Klara, 90 m²ko etxebizitza salgai. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin.

Tolosa. San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m²ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

Tolosa. Ugarran Goena, berritu beharreko bi etxebizitzako baserria salgai. 3 solairukoa.

Tolosa. San Frantzisko, 75 m²ko atikoa salgai. Eraberrituko.

Tolosa. Belate. Trasteleku berriak, ordaintzeko erreztasunekin. 9.480 eurotik aurrera.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m²ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Maituna zaharra, 15 garaje berri eta itxiak, 30m²tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko.

Eraikitzeko.

Tolosa. San Frantziskon apartamentu altua salgai. Logela bakarra. Guztia eraberritua. Ikuspegi ederrak.

Tolosa. San Frantziskon etxebizitza salgai. 90 m²koa, eraberritua, oso eguzkitsua.

LEITZA ▶ EZBEHARRA

Garbi drogeriko atariko suteak ez du ia-ia kalte materialik eragin

Drogeriak, pinturaz eta alkoholaz beteta egon arren, ez zuen su hartu

ERREDAKZIOA

Larunbat goizaldean norbaitek bi edukiontziei su eman ondoren Garbi drogeriko kristala lehertu zen. «Zorionez ez zen ezer gehiago gertatu, erakuslelhoan lurrinak eta alkohola baikeneuzkan. Hauek su hartu izan balute etxea erreko zen

goitik behera», azaldu du Lidia Alkortak, bertako nagusiak.

Sua berehala itzaltzea lortu zuten arren, lehenengo pisuko balkoiko arropak ere erre egin ziren, eta «etxea bera ere kez bete zen».

Errege Bezperan parranda handia izaten da herrian, eta kanpotik jende asko etorri ohi

da: «Nire ustez kanpoko norbaitek egindako baldarkeria bat da, hemen parranda asko izaten dira urtean zehar, baina ez da inoiz horrelakorik gertatu. Landa tabernaren aurreko edukiontzia ere bota egin zituzten. Axolagabetasun handiz jokatu dute drogeri baten aurrean hori egitean».



Kristala pitzatu zen sutearen ondorioz. N. GARZIA

GIZARTEA ▶

Guraso Elkarteak kide kopuruak gora egin du hiru lagunekin

Eguberri aurretik egindako bileran hiru kide berriren aurkezpena egiteaz gain, beste hainbat gai jorratu zituzten

NAIARA GARZIA

Dagoeneko 8 dira Leitzako Guraso Elkarteak partaideak, hiru kide sartu berri baitira. Eguberriaren aurretik egindako bileran egin zuten kide berrien aurkezpena.

Hiru lagun berri hauen aurkezpenaz gain, Gabonetako etenaldia baino lehen eta urte honetako hiruhileko berriari begira beste zenbait gai jorratu zituzten. Hasteko, pasa berri diren azterketen emaitzak

gainbegiratu zituzten. «Esamien emaitzak ez ditugu oraindik sakonki aztertu, hurrengo bileran egingo baitugu», diote Guraso Elkartetik. Hala ere, orokorrean «egoera berdintsuan jarraitzen dute ikasleek, hau da, klase batzuk nahiko justo dabilta». Batazbestekoa eginda emaitzak «nahiko onak» dira, beraz.

Honetaz gain, Guraso Elkar-teak talde bezala antolatzen dituen hainbat ekintzen inguruan aritu ziren. «Ez dakigu zer

antolatu», dio kide batek. «Lehenengo urtean hitzaldiak antolatu genituen. Horretarako psikologo bat ekarri genuen. Guraso eta seme-alaben arteko elkarbizitza jorratzea zuten hitzaldiek helburu, eta jendea ez zen animatu». Hau dela eta proposamenak ikuspuntu ezberdin batetik bideratzea pentsatu dute. «Ikasleen ordezkariarekin harremanetan jartzea da gure asmoa, gure proposamenak gurasoei beharrezan, ikasleei zuzentzeko». Hiru kide

berrik konpromisoa hartu duten arren, edozein gurasorentzat «ateak zabalik» dauzkate la azaldu dute, «ez dakigu zerk eragiten duen interes falta».

Bestalde, aurreko ikasturtean zehar, baja bat bete zuen atezainak euskara ez zekiela eta mantendu zuten borrokaren inguruan hainbat hausnarketa ere egin zituzten. Aurten go ikasturteari dagokionez, berriro betiko atezaina itzuli denez, «arazoa konpondu da».

Aresoko Guraso Elkarte

Areson dagoeneko bigarren hiruhileko ekintzak antolatzen dira Guraso Elkarteak. «Orain inhausteriak datoz, eta hauek antolatzea da gure helburua», dio Joxepi Marzolek, Guraso Elkarteak kideak. «Areson Kultur Taldea eta Guraso Elkartearen artean antolatzen ditugu herriko ekintza guztiak eta herrian ere jendeak asko laguntzen digu».



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. Udalak Landa-inguruneko Etengabeko Ikaskuntza Heziketa Jardueren barruan bi ikastaro hauek eman nahi ditu herrian urtarrilean edo otsailean hasita: Euskal sukaldaritzaren sortzaile berria eta Ordenagailu bidezko argazkigintza eta argazki-ukitua. Beraz, adin-nagusiko interesatuek udaletxean, liburategian edo 943 69 13 33 telefono zenbakira deituz eman dezakete izena. [Kultura.irura@udal.gipuzkoa.net](mailto:kultura.irura@udal.gipuzkoa.net) -era idatziz urtarrilaren 19a baino lehen.
Tolosa. Osakidetzako euskarazko azterketa prestatzeko matrikula zabalik dago Aitzol Udak Euskalgegiaren. Gaur izango da azken eguna. Interesatuek deitu 943 65 10 06 telefono zenbakira.

ZINEMA

Alegia. Gaztetzean, zine-klub saioan, 21:30ean, *Closer* filma ikusgai.

ERAKUSKETAK

Alegia. Ana Jesus Ansorenaren zeramika koadro lanak ikusgai, jubilatuen tabernan, igandera arte.
Tolosa. Hondakinen Ingurugiro erakusketa ikusgai izango da urtarrilaren 13a bitarte Aranburu Jauregin. Bisita-orduak 17:30etik 20:30era.
Tolosa. Maria Jose Rekalderen eskultura erakusketa ikusgai da Aranburu hilaren 20ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak.*
21:00-23:00. *Bide okerretik.*


▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Plazari bizia eman nahian

IKAZTEGIETA ▶ Plazako lanen azken fasearen baitan, eliza inguruko lanetan eserlekua, lur berria eta frontoitxo bat egiten ari dira eta atari bat berritzen



Elizako horma batean frontoitxo bat ari dira egokitzen. Arkupean bertan dago, euriaz babestuta. ENERITZ MAIZ



Zimeterioko lurra plazan erabilitako azulejoekin egiten ari dira. ENERITZ MAIZ

NEREA URBIZU

Ikaztegieta plaza eta eliza inguruko obrak amaituztat emateko, azken fasean dira lehenengo astetik. Zimitorioa ari dira moldatzen, lur berria jartzten eta han zegoen harritzko eserleku luzea berritzen. Kalizazko lurra jarri zuten plazan eta berdina erabiliko dute zimitorioan, elizako atepetan. Elizako aspaldiko sarretako bat ere ireki dute eta honen sarrera eta plaza bi maila ezberdinetan daudenez, bi eskailera jarri dituzte horretarako. Umeek plazan jolas egin dezaten parketxo bat ere egin zuten, eta elizan lau metroko horma bat egokitzen ari dira. Xabier Rezabal Ikaztegieta arkitektoak esan zuen bezala, «pilotan jolasteko edo, frontoitxo bat bezala izango da horma hau». Foru Aldundia ari da diru laguntza ematen, eta Udaleko teknikariak ari dira harrentzat lanean. «Hiru astetako lana izango dela aurreikusitako dugu; beraz, hilabete honen bukaeran dena egokituta izango dela uste dugu», Xabier Rezabalek argitu zuen moduan.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza **TOLOSAN** Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza **LEITZAN** Udaletzeko bulegoa

hitza agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...